



ZIZURKILGO UDALA

EZOHIKO OSOKO BILKURARAKO DEIA

Honen bidez, Ez Ohiko Osoko Bilkurarako deitzen dizut:

Eguna: **2011ko martxoaren 10a, osteguna**

Ordua: **14:00**

Tokia: Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa

EGUNEKO AZTERGAIAK

1.- **AURREKO UDALBATZARRAREN AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA (2010.12.27).**

2.- **2011 URTERAKO AURREKONTUA ETA UDALEKO PLANTILA ORGANIKOA ONARTZEA.**

3.- **ENPLEGU ETA TOKI IRAUNKORTASUNERAKO ESTATUKO FONDOAREN BARNE DAGOEN "ZIZURKILGO SAN MIGEL INGURUKO EURI-URAK BILTZEKO ETA UR ZIKINEN SAREA HOBETZEKO" OBREN LIKIDAZIOA ONARTZEA.**

4.- **EZINTASUNAK DITUZTEN PERTSONENTZAKO APARKALEKU TXARTELA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA ONARTZEA.**

5.- **ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALAN ALDAKETAK ONARTZEA.**

6.- **AIZTONDO TXIRRINDULARI KLASIKOA FINANTZATZEKO HITZERMENA ONARTZEA.**

7.- **ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (2010/199tik 2010/206ra eta 2011/1etik 2011/34ra).**

CONVOCATORIA A PLENO EXTRAORDINARIO

Por la presente le convoco a la Sesión de Pleno Extraordinario a celebrar:

Día: **10 de Marzo de 2.011, Jueves**

Hora: **14:00**

Lugar: Salón de Plenos de la Casa Consistorial.

ORDEN DEL DIA

1.- **APROBACION, SI PROCEDE, DEL ACTA DEL PLENO ANTERIOR (27.12.2010).**

2.- **APROBACION DEL PRESUPUESTO DEL AÑO 2.011 JUNTO CON LA PLANTILLA ORGANICA.**

3.- **APROBACION DE LA LIQUIDACION DE LAS OBRAS DEL "PROYECTO DE MEJORA DE LA RED DE SANEAMIENTO Y DRENAJE EN LA ZONA DE SAN MIGUEL EN ZIZURKIL", INCLUIDAS EN EL FONDO ESTATAL PARA EL EMPLEO Y LA SOSTENIBILIDAD LOCAL.**

4.- **APROBACION DE LA ORDENANZA MUNICIPAL REGULADRA DE LA TARJETA DE ESTACIONAMIENTO PARA PERSONAS CON DISCAPACIDAD.**

5.- **APROBACION DE MODIFICACIONES EN LA ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS.**

6.- **APROBACION DEL CONVENIO PARA LA FINANCIACION DE LA CLASICA CICLISTA AIZTONDO.**

7.- **COMUNICACION DE DECRETOS DE ALCALDIA (del 199/2010 al 206/2010 y del 1/2011 al 34/2011).**



ZIZURKILGO UDALA

**8.- TOLOSAKO ANGUBLATEGIARI
BURUZ MOZIOA.**

9.- GALDE-ESKAKIZUNAK.

Zizurkil, 2011ko martxoaren 4an.

Alkateak.

**8.- MOCION EN RELACION CON EL
AMBULATORIO DE TOLOSA.**

9.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

Zizurkil, 4 de Marzo de 2.011

La Alcalde.





ZIZURKILGO UDALA

2011ko MARTXOAREN 10ean EGINDAKO EZOHICO BILKURAKO AKTA

Partaideak/ Señores Asistentes:

ALKATEA/ALCALDE:

M^a Angeles Lazkano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.)

ZINEGOTZIAK/CONCEJALES:

Sagrario Jauregiberri Ugartemendia (E.A.J.-P.N.V.)

Ana Olaciregui Suescun (Hamikabat)

Idoia Ariznabarreta Ugarte (Hamaikabat)

Gurutze Resa Arregi (E.A.J.-P.N.V.)

Aitor López Ugartemendia (E.A.J.-P.N.V.)

José Manuel Izagirre Hortelano (Alternatiba)

IDAZKARIA /SECRETARIO:

José Ramón Eceizabarrena Garmendia

Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, bi mila eta hamaikako martxoaren hamarreko hamalau orduak direnean, Zizurkilgo Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate anderearen lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren zinegotzien partaidetzarekin. Raúl Vázquez Gonçalves (Talde Mistoa), Egoitz Sorozabal Iturain (E.A.J.-P.N.V.), Francisco Alonso Abad (P.S.E.-E.E./P.S.O.E.) eta Oscar Martínez Orive (P.S.E.-E.E./P.S.O.E.) zinegotziak ez dira etorri.

Lehendakaritzaren aginduz bilkura hasi da eta Idazkariak jakinarazi du berau egin daitekeela legez ezarritako quoruma bertan dagoelako.

1.- AURREKO UDALBATZARRAREN AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA (2010.12.27).

Udalbatzak, ahobatez, erabaki du 2010eko abenduaren 27an egindako Bilkurako Akta onartzea.

2.- 2011 URTERAKO AURREKONTUA ETA UDALEKO PLANTILA ORGANIKOA ONARTZEA.

Alkate Andreak 2011 urterako Aurrekontua

ACTA DE LA SESION EXTRAORDINARIA CELEBRADA EL DIA 10 DE MARZO 2.011

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, siendo las catorce horas del día diez de Marzo de dos mil once, se reúne la Corporación del Ayuntamiento de Zizurkil bajo la presidencia de la Señora Alcalde y con la asistencia de los Señores Concejales que arriba se citan, no asistiendo los concejales Raúl Vázquez Gonçalves (Talde Mistoa), Egoitz Sorozabal Iturain (E.A.J.-P.N.V.), Francisco Alonso Abad (P.S.E.-E.E./P.S.O.E.) y Oscar Martínez Orive (P.S.E.-E.E./P.S.O.E.)

Abierta la Sesión de orden de la Presidencia, el Secretario informa que la misma puede celebrarse por concurrir a ella el quórum legalmente establecido.

1.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL ACTA DEL PLENO ANTERIOR (27.12.2010).

La Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar el Acta del Pleno celebrado el día 27 de Diciembre de 2.010

2.- APROBACION DEL PRESUPUESTO DEL AÑO 2.011 JUNTO CON LA PLANTILLA ORGANICA.

La Señora Alcalde presenta para su aprobación



ZIZURKILGO UDALA

dagokion Plantila Organikoarekin aurkeztu du onartzeko.

Bere espedientean doan dokumentazioaren berri eman da, Ogasun Batzordearen aldeko irizpenarekin batera.

Kontuan hartu dira ondoko lege eta araudiak: Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 14 eta 15 artikulua eta Toki Administrazioen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean ezarritakoa

Ondoren 2011 urteko Aurrekontua onartzeko bozketa egin da. Hau da emaitza:

- Alde: 6 (4 E.A.J.-P.N.Vrenak eta 2 Hamikabaterenak)
- Aurka: 0.
- Abstentzioak: 1 (1 Alternatibarena).

Beraz, Udalbatzarrak, gehiengo absolutuaren botuekin hau erabaki du:

Lehen.- Hasierako onespena ematea 2011 urteko Aurrekontuari (I Eranskina) eta dagokion Plantila Organikoari (II Eranskina).

Bigarren.- Hamabost eguneko epean jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, interesdunek erreklamazioak aurkezteko aukera izan dezaten.

Hirugarren.- Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko da 2011 urteko Aurrekontua eta Plantila Organikoa eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

3.- ENPLEGU ETA TOKI IRAUNKORTASUNERAKO ESTATUKO FONDOAREN BARNE DAGOEN "ZIZURKILGO SAN MIGEL INGURUKO EURI-URAK BILTZEKO ETA UR ZIKINEN SAREA HOBETZEKO" OBREN LIKIDAZIOA ONARTZEA.

Enplegu eta Toki Iraunkortasunerako Estatuko Fondoaren babesean egin diren "ZIZURKILGO SAN MIGEL INGURUKO EURI-URAK

el Presupuesto para el ejercicio de 2.011, junto con la correspondiente plantilla Orgánica.

Se da cuenta de la documentación que consta en el expediente y el dictamen favorable de la Comisión de Hacienda.

Vistos los artículos 14 y 15 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de Diciembre y lo dispuesto en la Ley 7/1985 de 2 de Abril reguladora de las Bases de Régimen Local

Seguidamente se realiza la votación para la aprobación del Presupuesto del ejercicio 2.011, con el siguiente resultado.

- Votos a favor: 6 (4 de E.A.J.-P.N.V. y 2 de Hamikabat)
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 1 (1 de Alternatiba).

Por lo que el Pleno de la Corporación, por mayoría absoluta, acuerda:

Primero.- Aprobar inicialmente el Presupuesto del año 2.011 (Anexo I) junto con la Plantilla Orgánica para dicho ejercicio (Anexo II).

Segundo.- Exponer el expediente al público, previo anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, por un periodo de quince días, a fin de que por los interesados puedan formularse reclamaciones.

Tercero.- El Presupuesto del año 2.011 junto con la Plantilla Orgánica se entenderá aprobado definitivamente en el caso de que no se presenten reclamaciones ni sugerencias, y será publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

3.- APROBACION DE LA LIQUIDACION DE LAS OBRAS DEL "PROYECTO DE MEJORA DE LA RED DE SANEAMIENTO Y DRENAJE EN LA ZONA DE SAN MIGUEL EN ZIZURKIL", INCLUIDAS EN EL FONDO ESTATAL PARA EL EMPLEO Y LA SOSTENIBILIDAD LOCAL.

Se da cuenta de la Liquidación de las obras de "PROYECTO DE MEJORA DE LA RED DE SANEAMIENTO Y DRENAJE EN LA ZONA



ZIZURKILGO UDALA

BILTZEKO ETA UR ZIKINEN SAREA HOBETZEKO” obren likidazioaren berri eman da.

Obraren Proiektuak 284.010,40 euroko aurrekontua zuen. Proiektua idaztearen aurrekontua 10.022,40 euroko kostua zuen eta obren zuzendaritzak 8.017,92 euro. Hau guztira ordaintzeko, Estatuko Fondoaren dirulaguntza 302.051 eurokoa zen.

Proiektua idaztearen kostua aurreikusita zeuden 10.022,40 eurokoa izan da. Obraren zuzendaritza berriz, 138,24 euroko igoera izan du, BEZaren %16tik %18rako gehikuntza dela eta, 8.156,16 eurotan likadatu denez.

Hasiera batean obrak 206.195,59 eurotan esleituak izan ziren, baina bukarean 283.524,21 euroko kostua izan dute, BEZez barne. Igoera honen zati bat %16tik %18ra BEZaren igoeragatik izan da, baina igoera gehiena ikusi delarik, lanak aurrera doazen neurrian, hasieran Proiektuan aurreikusitakoez gain aurreikusi gabeko lan osagarriak daudela eta hauek nahitaez egin behar direla, lanaren azken emaitza hoberena izatea nahi bada. Hauek dira lan berri hauek:

- Meriolako adarra exekutatzea. Ikusi da bere egoera txarra dela eta diametro urria duela eta horrek uholdeak eta urak zuzenean errepidera isurtzea eragiten dituela.
- Lurzoru publiko eta pribatuaren arteko muga baranda bat exekutatzea. Horren helburua da oinezkoak ibili behar duten esparru publikoa mugatzea.
- Exekutatzen ari den kanalizazioaren gainean onezkoentzako bide bat egingo denez, aukera hori baliatu eta lurrazpiko azpiegitura sartzeari, etorkizun batean argiteria-sareak, telekomunikazioaren edo beste batzuek erabili ahal izateko, berriz ere errepide berriko zoladura altza beharrik izan gabe.

DE SAN MIGUEL EN ZIZURKIL”, de Zizurkil” incluídas en el Fondo Estatal para el Empleo y la Sostenibilidad Local.

Según el presupuesto del Proyecto las obras ascendían a la cantidad de 284.010,40 euros, la redacción del proyecto a un total de 10.022,40 euros y la dirección de obra a 8.017,92 euros, lo cual suma un total de 302.050,72 euros. La aportación del Fondo Estatal para este municipio de Zizurkil alcanzaba el importe de 302.051 euros.

El gasto correspondiente a la redacción del proyecto se ha ajustado a los 10.022,40 euros presupuestados, mientras que el de dirección de obra se ha liquidado en 8.156,16 euros, 138,24 euros más, debido al incremento del IVA (16 al 18%)

Las obras, que en un principio habían sido adjudicadas por un importe de 206.195,59 euros, han ascendido finalmente a la cantidad total de 283.524,21 euros, IVA incluido. Este incremento del importe final de las obras ha sido debido en parte al incremento del IVA (16 al 18%) y sobre todo a que a medida que avanzaban éstas se ha ido comprobando la ineludible necesidad de ejecutar trabajos imprevistos y complementarios a los inicialmente previstos en el Proyecto y que han sido concretamente:

- la ejecución del ramal de Meriola, al comprobarse el mal estado en el que se encontraba, su escaso diámetro que provocaba inundaciones y por el hecho de que vertía directamente las aguas a la carretera.
- la ejecución de una barandilla en el límite entre suelo público y privado con el fin de delimitar el espacio público por el que deben circular los peatones.
- al realizarse un camino peatonal sobre la canalización se han ejecutado dos redes de alumbrado y telecomunicaciones con el fin de no demolerse el pavimento ante futuras actuaciones en el camino.



ZIZURKILGO UDALA

- Erregatako zati bat kanalizatzea, lur gainetik igarotzen denean orain dagoen bide bat hondatzen baitu.

Lan hauek guztiek eragin dute lanen azken dirukopurua, hasieran esleipenean aurrikusitakoak baino 77.328,62 euro gehiagokoa izatea, B.E.Z. barne.

Ondoren obren Likidazioa onartzeko bozketa egin da. Hau da emaitza:

- Alde: 7 (4 E.A.J.-P.N.Vrenak, 2 Hamikabatenak et 1 Alternatibarenak)
- Aurka: 0.
- Abstentzioak: 0.

Beraz, Udalbatzarrak, gehiengo absolutuaren botuekin hau erabaki du:

Lehen.- Enplegu eta Toki Iraunkortasunerako Estatuko Fondoaren babesean egin diren “ZIZURKILGO SAN MIGEL INGURUKO EURI-URAK BILTZEKO ETA UR ZIKINEN SAREA HOBETZEKO” obren Likidazioa, 301.702,77 eurokoa izan dena. Kantitate honetan, egindako obrak, proiektua idaztea eta obren zuzendaritza sartzen dira.

Bigarrena.- 2.009ko zaroaren 2ko Ebazpenaren 6 artikuluan aipatzen den dokumentazioa bidaltzea Toki Kooperazio Zuzendaritza Nagusiari, egin den inbertsioa zuzentzeko eta dirulaguntzaren likidazioa eskatzeko.

4.- EZINTASUNAK DITUZTEN PERTSONENTZAKO APARKALEKU TXARTELA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA ONARTZEA.

Ongizate Batzordeak aurkeztutako “Ezintasunak dituzten pertsonentzako aparkaleku txartela arautzen duen udal Ordenantza” aztertu ondoren, Udalbatzak aho batez, osatzen duten 11 zinegotzietatik bertan dauden 7en aldeko botuekin (4 E.A.J.-P.N.V.renak, 2 Hamaikabatenak eta 1 Alternatibarena), legezko gehiengoak dena, honako hau onartu du:

- la canalización de un tramo de regata que al discurrir en superficie deterioraba un camino existente.

Todos estos trabajos han hecho que el importe final de las obras se haya incrementado en 77.328,62 euros más, IVA incluido, que los inicialmente previstos en la adjudicación.

Seguidamente se realiza la votación para la aprobación de la Liquidación de las obras, con el siguiente resultado.

- Votos a favor: 7 (4 de E.A.J.-P.N.V., 2 de Hamikabat y 1 de Alternatiba)
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

Por lo que el Pleno de la Corporación, por unanimidad, acuerda:

Primero.- Aprobar la Liquidación de las obras de “PROYECTO DE MEJORA DE LA RED DE SANEAMIENTO Y DRENAJE EN LA ZONA DE SAN MIGUEL EN ZIZURKIL”, incluidas en el Fondo Estatal para el Empleo y la Sostenibilidad Local y que han ascendido a un total de 301.702,77 euros, cantidad en la que se incluyen las obras realizadas, la redacción del proyecto y la dirección de obras.

Segundo.- Remitir a la Dirección General de Cooperación Local la documentación indicada en el artículo 6 de la resolución de 2 de Noviembre de 2.009 para justificar la inversión realizada y solicitar la liquidación de la subvención correspondiente.

4.- APROBACION DE LA ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA TARJETA DE ESTACIONAMIENTO PARA PERSONAS CON DISCAPACIDAD.

Vista la “Ordenanza municipal reguladora de la tarjeta de estacionamiento para personas con discapacidad” que presenta la Comisión de Bienestar Social, la Corporación por unanimidad de los siete corporativos presentes (4 de E.A.J.-P.N.V., 2 de Hamaikabat y 1 de Alternatiba) de los once que la componen, lo cual representa la mayoría legal absoluta, acuerda:



ZIZURKILGO UDALA

Lehena.- “Ezintasunak dituzten pertsonentzako aparkaleku txartela arautzen duen udal Ordenantza” onartzea.

Bigarrena.- Erabaki hau eta bere espedientea jendaurrean jarriko da hogeita hamar egunez, interesatuen aztertu eta ala balitz, alegazio eta erreklamazioak jartzeko. Epe horretan erreklamazio edo obserbaziorik aurkeztuko ez balitz, aipatutako Ordenantza behin betikotzat onartua joko da, erabaki berrien beharrik gabe.

5.- ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALAN ALDAKETAK ONARTZEA.

Ogasun Batzordeak aurkeztutako “Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza fiskala”ri aldaketen proposamena eta bere aldeko txostena aztertu ondoren, Udalbatzak aldaketa onartzeko bozketa egin du. Hau da emaitza:

- Alde: 6 (4 E.A.J.-P.N.V.renak, 2 Hamikabatenak)
- Aurka: 0.
- Abstentzioak: 1 (1 Alternatibarenak).

Beraz, Udalbatzarrak, legezko gehiengoarekin, honako hau erabaki du:

Lehena.- “Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza fiskala”ren aldaketak onartzea, Akta honen III Eranskinean jasotzen direnak..

Bigarrena.- Erabaki hau eta bere espedientea jendaurrean jarriko da hogeita hamar egunez, interesatuen aztertu eta ala balitz, alegazio eta erreklamazioak jartzeko. Epe horretan erreklamazio edo obserbaziorik aurkeztuko ez balitz, aipatutako Ordenantzaren aldaketak behin betikotzat onartutzat joko dira, erabaki berrien

Primero.- Aprobare la “Ordenanza municipal reguladora de la tarjeta de estacionamiento para personas con discapacidad”

Segundo.- Exponer al público el acuerdo adoptado y el expediente instruido al efecto por período de treinta días hábiles a fin de que los interesados puedan examinarlos y formular las alegaciones y reclamaciones que consideren oportunas. Una vez transcurrido el plazo reglamentario de esta información sin que se haya producido reclamación u observación alguna, se tendrá por definitivamente aprobada la mencionada Ordenanza, sin necesidad de nuevos acuerdos.

5.- APROBACION DE MODIFICACIONES EN LA ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS.

Vista la propuesta de modificaciones a realizar en la “Ordenanza fiscal reguladora del Impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras” planteada por la Comisión de Hacienda y el informe favorable de la misma, la Corporación realiza la votación para la aprobación de la modificación propuesta, con el siguiente resultado.

- Votos a favor: 6 (4 de E.A.J.-P.N.V. y 2 de Hamikabat)
- Votos en contra: 1 (1 de Alternatiba).
- Abstenciones: 0.

Por lo que el Pleno de la Corporación, por mayoría legal absoluta, acuerda:

Primero.- Aprobare las modificaciones a realizar en la “Ordenanza fiscal reguladora del Impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras”, que se recogen en el Anexo III de este Acta.

Segundo.- Exponer al público el acuerdo adoptado y el expediente instruido al efecto por período de treinta días hábiles a fin de que los interesados puedan examinarlos y formular las alegaciones y reclamaciones que consideren oportunas. Una vez transcurrido el plazo reglamentario de esta información sin que se haya producido



ZIZURKILGO UDALA

beharrik gabe. Ordenantza Fiskal honen gainontzeko testua aldaketarik gabe mantentzen da.

6.- AIZTONDO TXIRRINDULARI KLASIKOA FINANTZATZEKO HITZERMENA ONARTZEA.

Aiztondo txirrindulari Klasikoa finantzatzeko sinatu behar den Hitzarmenaren berri eman da. Hitzarmena Aiztondo Klasikoa Batzordea eta Aduna, Alkiza, Asteasu, Larraul, Villabona eta Zizurkilgo Udaleen aretan sintu behar da, 2010 eta 2015 bitartean egingo diren lasterketak finantzatzeko.

Hitzarmena aztertu ondoren, Udalbatzak aho batez, bertan dauden 7 udalbazkideen aldeko botuekin (4 E.A.J.-P.N.V.renak, 2 Hamaikabatenak eta 1 Alternatibarena), hitzarmena onartzea erabaki du.

7.- ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (2010/199tik 2010/206ra eta 2011/1etik 2011/34ra).

2010eko abenduaren 21etik 31ra Alkateak sinatutako 2010/199tik 2010/206ra zenbakia duen Dekretuen zerrendaren berri ematen da, baita 2011ko ilbeltzaren 10etik otsailaren 28ra Alkateak sinatutako 2011/1etik 2011/34ra zenbakia duen Dekretuen berri ere. Jatorrizkoak, Alkatetzaren Dekretu Liburuan jasota daude eta bertan aztertu daitezke.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

8.- TOLOSAKO ANBULATEGIARI BURUZ MOZIOA.

Aurkeztutako Mozioa hau da:

“Azken hilabeteotan Tolosako anbulatorioko hainbat espezialitate-zerbitzuen kontsultak bertan egiterari utzi dio Osakidetzak eta Nuestra Señora de la Asunción klinika bidez ematen hasi da. Hori gertatu da, gutxien gutxienik

reclamación u observación alguna, se tendrá por definitivamente aprobadas las mencionadas modificaciones en la Ordenanza, sin necesidad de nuevos acuerdos, manteniendo la vigencia del resto del texto de la Ordenanza Fiscal.

6.- APROBACION DEL CONVENIO PARA LA FINANCIACION DE LA CLASICA CICLISTA AIZTONDO.

Se da cuenta del Convenio para la financiación de la Clásica ciclista Aiztondo a firmar entre la Aiztondo Klasikoa Batzordea y los Ayuntamientos de Aduna, Alkiza, Asteasu, Larraul, Villabona y Zizurkil para la financiación de dicha carrera ciclista durante los años 2010 al 2015, ambos inclusive.

Visto el Convenio, la Corporación por unanimidad de los siete corporativos presentes (4 de E.A.J.-P.N.V., 2 de Hamaikabat y 1 de Alternatiba) acuerda aprobar el mismo.

7.- COMUNICACION DE DECRETOS DE ALCALDIA (del 199/2010 al 206/2010 y del 1/2011 al 34/2011).

Se da cuenta del listado de los Decretos nº 199/2010 al 206/2010 firmados por la Alcaldía entre el 21 y el 31 de Diciembre de 2.010, y nº 1/2011 al 34/2011 firmados por la Alcaldía entre el 10 de Enero y el 28 de febrero de 2.011, cuyos originales se conservan y pueden ser examinados en el Libro de Decretos de Alcaldía.

La Corporación se da por enterada.

8.- MOCION EN RELACION CON EL AMBULATORIO DE TOLOSA.

La Moción presentada es la siguiente:

“Estos últimos meses Osakidetza ha dejado de ofrecer en el Ambulatorio de Tolosa algunas de las consultas de su servicio de especialidades y ha comenzado a prestarlas en la clínica privada de Nuestra Señora de la Asunción. Así ha



ZIZURKILGO UDALA

oftalmologiako, urologiako eta digestiboko kontsultekin. Horrek, anbulatorioaren espezialitate kontsulten etorkizunari buruzko kezka sortu du bai bertako langileen artean eta baita herritarren artean ere. Itxura batean, 2011ko otsailetik aurrera Osakidetza espezialitate-kontsulta guztiak aipatu klinika pribatuaren bidez egin nahi ditu. Horren ondorioz, osasun-sistema publikoa kaltetuta eta ahulduta geldituko da Tolosan eta Tolosaldean.

Bestetik, Tolosaldeko osasun-sare publikoak hutsune nabarmen bat du eskualde-ospitalerik ez dagoelako bertan. Gure eskualdean indar eta pisu demografiko nahikoa izan dezake eskualde-ospitale bat izateko, horrela, osasun-sistema publikoaren eskaintza osatzeko eta herritarrek egokiago zerbitzatzeko.

Horregatik guztiagatik, mozio hau aurkeztu du, Zizurkilgo Udalaren osoko bilkurak honako hau onar dezan:

Lehena.- Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo sailari Tolosako Anbulatorioari eta Tolosaldeko osasun-zerbitzuei buruz dituen asmoak azal diezazkiola eskatzea eperik motzenez.

Bigarrena.- Tolosaldeko udalek aldarrikatzen dute, orain artean Tolosaldeko atentzio osoa, lehen arretako zein espezialitatea, eskaini den era berean jarraitzea aurrera begira mozio honetako 3. atala gauzatu artean.

Hirugarrena.- Zizurkilgo Udalak Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo sailari eska diezaiola egin dezala azterketa sakona Tolosaldean eskualde-ospitale bat ezartzearen beharraz eta komenientziaz, beti ere, herritarren ongizatearen ikuspegitik eta kontsidera dezala eskualde-ospitale hori azpiegitura pribatu baten publikakazioa baliatuz ezarri ote daitekeen.

Aurkeztutako Mozioa aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartzea erabaki du.

ocurrido por lo menos con las consultas de oftalmología, urología y digestivo. Este hecho ha causado preocupación e inquietud sobre el futuro de las consultas de especialidades del ambulatorio tanto entre el personal del propio ambulatorio como en el resto de la población. Por lo que parece, Osakidetza pretende que todas las consultas de especialidades se realicen a través de dicha clínica privada a partir del mes de febrero del 2011. Como consecuencia de ello el sistema público de salud quedará dañado y debilitado en Tolosa y su comarca.

Por otra parte, la red pública de salud de la comarca de Tolosaldea tiene un importante déficit al no disponer de un hospital comarcal. Tolosaldea, como comarca, tendría el suficiente peso y fuerza demográfica para disponer de un hospital comarcal y completar de esa manera la oferta del sistema público de salud y, en definitiva, ofrecer un servicio más adecuado a la población.

Por todo ello, presenta esta moción para que el Pleno de la Corporación acuerde lo siguiente:

Primero.- Solicitar al Departamento de Sanidad y Consumo del Gobierno Vasco que en el plazo más breve posible informe a este Ayuntamiento de los planes que tiene sobre el Ambulatorio de Tolosa y los servicios de salud de Tolosaldea.

Segundo.- Manifestar que el sistema público de salud es el sistema más adecuado para velar por la salud de la población y que en Tolosaldea el sistema público de salud debe prestar directamente, sin desviar hacia el sistema privado, todos sus servicios, tanto los de atención primaria como los de especialidades.

Tercero.- Solicitar al Departamento de Consumo y Sanidad del Gobierno Vasco la realización de un estudio profundo sobre la necesidad y la conveniencia de establecer un hospital comarcal en Tolosaldea desde la perspectiva, en todo momento, del bienestar de la población, y que considere la posibilidad de su implantación mediante la publicación de una infraestructura privada.

Vista la Moción presentada, la Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar la misma.



ZIZURKILGO UDALA

Eguneko Aztergaietatik kanpo eta presazkoa dela adierazi ondoren, gai hau aztertu da.

9.- 2010eko URRIAREN 22an EMANDAKO DOAKO ESKUALDATZE ESKRITURAKO BALDINTZA SUNTSIARAZLEAN AURRIKUSITAKO ALDATZEKO BAIMENA ESKATZEA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIARI.

Expedientea ikusi da. Gertatzen da 2010eko urriaren 22an eskritura publikoa eman zela Donostiako Juan Zapata Perez notariaren aurrean. Horren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiak Zizurkilen dauden bi finken titularitatea eskualdatzen zaion Zizurkilgo Udalari, hain zuzen ere, RB1 eta RB2 izenez adieraziak eta, hurrenez hurren, 2.148,30 m² eta 310,96 m² dituztenak.

Finka horiek Tolosako Jabetza-Erregistroan daude inskribatuak eta hauek dira beraien erregistro-datuak:

- Erregistro-inskripzioa: Tolosako Jabetza-Erregistroa, 2189 Tomoa, Zizurkilgo 61 Liburua, 215 Folioa, 2813 Finka, 2.inskripzioa.
- Erregistro-inskripzioa: Tolosako Jabetza-Erregistroa, 2189 Tomoa, Zizurkilgo 61 Liburua, 218 Folioa, 2814 Finka, 2.inskripzioa.

Gertatzen da bi finken eskualdatzea doakoa izan zela, baldintza suntsiarazleari lotua. Eskrituran horrela dago jasoa:

“BALDINTZA SUNTSIARAZLEA:

Doako besterentzearen baldintza suntsiarazleak hauek dira: a) Besterentze epea mugagabea izango da. b) Eskualdatutako lurzatiak tasatutako 42 udal etxebizitza gehi lokalak eta garajeak sustatzeko erabiliko dira, eta horren kudeaketa Udalak berak egin ahal izango du zuzenean, edo zeharka administrazio kontratuei

Fuera del Orden del Día y previa declaración de urgencia, se trata el siguiente tema:

9.- SOLICITUD A LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKA, DE AUTORIZACION PARA LA MODIFICACIÓN DE LA CONDICIÓN RESOLUTORIA PREVISTA EN LA ESCRITURA DE ENAJENACIÓN GRATUITA OTORGADA CON FECHA 22 DE OCTUBRE DE 2.010

Visto el expediente, resultando que con fecha 22 de Octubre de 2.010 fue otorgada escritura pública ante el notario de San Sebastián Don Juan Zapata Pérez, por el que se transmitía por parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa, al Ayuntamiento de Zizurkil, la titularidad de dos fincas situadas en Zizurkil, en concreto en el área 10 de las Normas Subsidiarias de Zizurkil, y señaladas como RB1 y RB2, de 2.148,30 m² y 310,96 m² respectivamente.

Las fincas citadas se encuentran inscritas en el Registro de la Propiedad de Tolosa, con los siguientes datos registrales:

- Inscripción Registral: Registro de la Propiedad de Tolosa, al Tomo 2189, Libro 61 de Zizurkil, Folio 215, Finka 2813, inscripción 2ª.
- Inscripción Registral: Registro de la Propiedad de Tolosa, al Tomo 2189, Libro 61 de Zizurkil, Folio 218, Finka 2814, inscripción 2ª.

Resultando que la transmisión de ambas fincas, fue con carácter gratuito, sujeta a condición resolutoria, recogida en la escritura en los siguientes términos:

“CONDICIÓN RESOLUTORIA:

La enajenación gratuita que se inscribe queda sujeta a las siguientes condiciones: a) la enajenación se realiza por plazo indefinido. b) Las parcelas transmitidas se destinarán al desarrollo de una promoción de cuarenta y dos viviendas tasadas municipales, además de locales y garajes, y su gestión podrá realizarse



ZIZURKILGO UDALA

buruzko araudian edo lurzoruaren legean zehaztutako moduetako edozeinetan. c) Zizurkilgo Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiaren posizioa subrogatuko du 2009ko martxoaren 27an onartutako 10. arearen Birpartzelazio Proiektuan; beraz, bere gain hartuko du proiektu horretatik eratorritako kalte-ordainen ordainketa (gaur egun 402.889,63 eurotan baloratzen direnak), baita partikularrek abiarazitako prozedura judizialaren ondorioz gerta daitekeen gehikuntza ere. d) Zizurkilgo Udalak indarrik gabe utziko ditu Etorlur Gipuzkoako Lurra SAU sozietatearekin 2007ko martxoaren 16an izenpetutako Hirigintza Hitzarmena eta Gipuzkoako Foru aldundiarekin 2009ko maiatzaren 14an izenpetutako Kontzertazio Hitzarmena; horrekin batera, doan besterentzeko eskritura publikoa egingo den egunean, legeak xedatutakoaren arabera araututako bermea itzuliko du. Aurreko atalean ezarritako baldintzak betetzen ez badira, doako besterentze honen xede diren finkak modu automatikoan Gipuzkoako Foru Aldundiaren ondarekoak izatera pasako dira eta haien jabe bihurtuko da inolako kalteordainik ordaindu behar izan gabe.”

Gertatzen da eskualdatzea Gipuzkoako Foru Aldundiak egin zuela, ETORLUREK 10 arearen kudeaketa garatzeko ezintasuna zuela eta. Bertan foru-etxebizitza tasatuak exekutatzea sen asmoa. Foru Aldundiaren (finken jabea) eta Udalaren arteko akordio bat egon zen, eskualdatzea gauzatzeko; horren xedea zen Zizurkilgo Udalak sustatuko zuela arearen kudeaketa eta aurrikusitako hiri-aprobetxamenduak etxebizitza babetuak eraikitzeko erabiliko zituela.

Gertatzen da finken eskualdatzea gauzatu ondoren, Zizurkilgo Udalak, jabe berri izanik eta area kudeatzeko xedearekin, Xehetasun Azterketa, Hiriztatze Proiektua eta

bien directamente por el propio Ayuntamiento, bien de forma indirecta, por cualquiera de las formas establecidas en la normativa sobre contratación administrativa o en la legislación del suelo. c) El “Ilustre Ayuntamiento de Zizurkil” se subrogará en al posición de la Excm. Diputación Foral de Gipuzkoa en el Proyecto de Reparcelación del Área 10, aprobado con fecha 27 de marzo de 2.009, por lo que hará frente al abono de la cuantía de las indemnizaciones derivadas del citado proyecto y que se valora en la actualidad en la cifra de cuatrocientos dos mil ochocientos ochenta y nueve euros con sesenta y tres céntimos (402.889,63 euros), así como al incremento que, en su caso, pudiera derivarse del procedimiento judicial incoado por los particulares. d) El “Ilustre Ayuntamiento de Zizurkil” deja sin efecto el Convenio Urbanístico formalizado con “Etorlur Gipuzkoako Lurra, S.A.U.” con fecha 16 de marzo de 2.007 y el Convenio de Concertación formalizado con la “Excm. Diputación Foral de Gipuzkoa” el 14 de mayo de 2.008, y procede a la devolución de la garantía constituida con arreglo a la ley en este acto. En caso de incumplimiento de las condiciones establecidas en el apartado anterior, la finca de este número y otra objeto de enajenación gratuita, revertirán automáticamente al patrimonio de la “Excm. Diputación Foral de Gipuzkoa, haciendo suya en ese momento la propiedad de las mismas sin que deba satisfacer indemnización alguna”.

Resultando que la transmisión fue realizada por parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa, ante la imposibilidad por parte de ETORLUR, de llevar a cabo la gestión del área 10, en donde se pretendía ejecutar viviendas tasadas forales, lo que trajo como consecuencia el acuerdo entre la Diputación (propietaria de las fincas) y el Ayuntamiento, por el que se realizaba la transmisión, con el objeto de que el Ayuntamiento de Zizurkil impulsara la gestión del área y destinara los aprovechamientos urbanísticos previstos a la construcción de viviendas protegidas.

Resultando que una vez formalizada la enajenación de las fincas, el Ayuntamiento de Zizurkil, en su calidad de nuevo propietario, y con la finalidad de gestionar el área, ha



ZIZURKILGO UDALA

Birpartzelazio Proiektua aldatu zituen. Lehena behin betirako onartua dago eta beste biak hasiera batean onartuak.

Kontutan izanik kontextu honetan, bere egunean behin betirako birpartzelazio proiektuaren aldaketa hasiera batean onartu ondoren (honek Pasus-enea eraikineko jabeen aldeko kalteordaina jasotzen du, hau botatzea beharrezkoa delako), akordio bat lortu dela jabetzarekin. Akordio honen arabera, birpartzelazio proiektuan aurrikusitako konpentsazio ekonomikoak 10 arean eraikiko diren 42 etxebizitzetarikoa baten esleipenaz ordeztuko dira (kontutan izan behar da, gainera, jabeek beste etxebizitza bat izateko eskubidea dutela). Dena den, akordioak jasotzen du etxebizitzaren esleipena **errejimen librean** izango dela, eta ez udal etxebizitza tasatua.

Kontutan izanik akordio honek garrantzi handia duela Udalarentzat, horrekin kitatuak geratuko bailirake aurreko fasetik zetozen desadostasunak (jabetzari kantitate ekonomikoak onartzen zitzaizkion kalteordain modura; zenbatekoari zegokion administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri zen eta, ondorioz, zalantza zegoen zenbatekoa izango zen azkenean kalteordaina eta, horrekin, aldagai horrek baldintzatu egiten duen arearen kudeaketa).

Kontutan izanik aurrez adierazitakoa, eta eskualdatze eskrituran baldintza suntsiarazle bezala agertzen dela *“Eskualdatutako lurzatiak tasatutako 42 udal etxebizitza gehi lokalak eta garajeak sustatzeko erabiliko dira”*, idatzi honen bidez baldintza hori aldatzea eskatu nahi da, horrela geratuz: baldintza hori izango da tasatutako 41 udal etxebizitza gehi lokalak eta garajeak eta libre bat, beste etxebizitza bat izateko, sustatzea.

Adierazitako guztiagatik Udalbatzak, osatzen duten hamaika udalbazkideetatik bertan zeuden zazpi adostasunez (4 E.A.J.-P.N.V.koak, 2 Hamaikabatekoak eta 1 Alternatibakoa), legezko gehiengo absolutua dena, zera erabaki du:

procedido a modificar el Estudio de Detalle, el cual se encuentra aprobado definitivamente, y el Proyecto de Urbanización y el de Reparcelación, ambos aprobados inicialmente.

Considerando que en este contexto, tras la aprobación inicial de la modificación del proyecto de reparcelación aprobado definitivamente en su día, en el que se contempla la indemnización a favor de las propietarias del edificio Pasus-enea, al ser necesario su derribo, se ha llegado a un acuerdo con la propiedad, en el sentido de sustituir las compensaciones económicas previstas en el proyecto de reparcelación, por la de adjudicación de una de las 42 viviendas a construir en el área 10, (teniendo en cuenta además de que las propietarias tienen derecho a realojo), si bien el acuerdo pasa por que la adjudicación de la vivienda sea **en régimen libre**, en vez de tasada municipal.

Considerando que este acuerdo tiene gran relevancia para el Ayuntamiento, ya que con ello quedarían zanjados los desacuerdos que ya se arrastraban desde una fase anterior, por el que se reconocían a la propiedad cantidades económicas en concepto de indemnización, cuya cuantificación fue objeto de recurso contencioso-administrativo, lo que llevaba a una incertidumbre sobre el precio final que debía indemnizarse y con ello, quedaba la gestión del área mediatizada por dicha variable.

Considerando que teniendo en cuenta lo señalado anteriormente, y que en la escritura de transmisión se establecía dentro de la condición resolutoria, que: *“Las parcelas transmitidas se destinarán al desarrollo de una promoción de cuarenta y dos viviendas tasadas municipales...”*, por la presente quiere solicitarse la modificación de la citada condición en el sentido de que la condición se sujete a la promoción de cuarenta y un viviendas tasadas municipales, y una libre, para el realojo.

Por todo lo expuesto, la Corporación, por unanimidad de los siete corporativos presentes (4 de E.A.J.-P.N.V., 2 de Hamaikabat y 1 de Alternatiba) de los once que la componen, lo cual representa la mayoría legal absoluta, acuerda:



ZIZURKILGO UDALA

Gipuzkoako Foru Aldundiari 2010eko urriaren 22an Gipuzkoako Foru Aldundiak Zizurkilgo Udalaren alde emandako doaineko eskualdatze eskrituran aurrikusitako baldintza suntsiarazlea aldatzea baimentzea eskatzea, baldintza suntsiarazlearen b) ataka ondoren esaten den moduan aldatuz: “b) *Eskualdatutako lurzatiak tasatutako 42 udal etxebizitza gehi lokalak eta garajeak sustatzeko erabiliko dira*” esaten duen tokian “b) *Eskualdatutako lurzatiak tasatutako 41 udal etxebizitza gehi lokalak eta garajeak eta libre bat...*” jartzea.

Beste aztergairik gabe, eta hamalau orduak eta hogeita bost minutuak direnean, Batzarra amaitu da eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.

O.I.
ALKATEA.

Vº Bº
LA ALCALDE.



Solicitar a la Diputación Foral de Gipuzka, autorice la modificación de la condición resolutoria prevista en la escritura de enajenación gratuita otorgada con fecha 22 de Octubre de 2.010, por la Diputación Foral de Gipuzkoa a favor del Ayuntamiento de Zizurkil, y se acuerde la modificación de lo previsto en el punto b) de la condición resolutoria, de forma que en donde se establecía “b) *Las parcelas transmitidas se destinarán al desarrollo de una promoción de cuarenta y dos viviendas tasadas municipales,....*”, en su lugar, se recoja: “b) *Las parcelas transmitidas se destinarán al desarrollo de una promoción de cuarenta y un viviendas tasadas municipales, y una en régimen libre....*”,

Y sin más asuntos que tratar, y siendo las catorce horas y veinticinco minutos, se levanta la Sesión, de la cual, yo, el Secretario, doy fe y certifico.



ZIZURKILGO UDALA

I ERANSKINA -- ANEXO I

2011rako DIRUSARREREN AURREKONTUA		PRESUPUESTO DE INGRESOS PARA EL 2.011
1 KAPITULUA	ZERGA ZUZENAK IMPUESTOS DIRECTOS	514.150
2 KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK IMPUESTOS INDIRECTOS	25.000
3 KAPITULUA	TASAK ETA BESTE DIRUSARRERAK TASAS Y OTROS INGRESOS	307.735
4 KAPITULUA	OHIZKO TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	1.631.915
5 KAPITULUA	DIRUSARRERA PATRIMONIALAK INGRESOS PATRIMONIALES	19.165
6 KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA ENAJENACION DE INVERSIONES REALES	900.000
7 KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	625.015
8 KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK ACTIVOS FINANCIEROS	13.950
9 KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK PASIVOS FINANCIEROS	0
GUZTIRA / TOTAL		4.036.930

2011rako GASTUEN AURREKONTUA		PRESUPUESTO DE GASTOS PARA EL 2.011
1 KAPITULUA	LANGILEEN ORDAINKETA REMUNERACIONES DEL PERSONAL	1.094.160
2 KAPITULUA	ONDASUN ETA ZERBITZUAK EROSTEA COMPRA DE BIENES Y SERVICIOS	612.780
3 KAPITULUA	INTERESAK INTERESES	85.500
4 KAPITULUA	OHIZKO TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	674.770
6 KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES	892.200
8 KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK ACTIVOS FINANCIEROS	92.830
9 KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK PASIVOS FINANCIEROS	406.730
GUZTIRA / TOTAL		3.858.970
2009ko ALT XORTEGI GERAKINA NEGATIBOA REMANENTE TESORERIA NEGATIVO DE 2.009		177.960
GUZTIRA / TOTAL		4.036.930



ZIZURKILGO UDALA

II ERANSKINA

2011. URTEKO PLANTILA ORGANIKOA

1- KARRERAKO FUNTZIONARIOENTZAT GORDETAKO PLAZAK

<i>Izena</i>	<i>Kopurua</i>	<i>Taldea</i>	<i>Egoera</i>
IZAERA NAZIONALEKO HABILITAZIO ESKALA			
<i>Idazkaritza-Kontuhartzaitza azpieskala</i>			
Idazkari-Kontuhartzailea, 3.Maila	1	A1	Jabetzan
ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALA			
<i>Administrarien Azpieskala</i>			
Administraria	3	C1	Jabetzan
<i>Laguntzaileen Azpieskala</i>			
Administrari Laguntzailea	1	C2	Jabetzan
ADMINISTRAZIO BERIZIKO ESKALA			
<i>Azpieskala Teknikoa</i>			
- Goi Mailako teknikarien mota			
Goi mailako teknikaria (Arkitektoa)	1	A1	Praktiketan
- Erdi Mailako teknikarien mota			
Erdi mailako teknikaria	4	A2	Jabetzan
- Teknikari Laguntzaileen mota			
Teknikari laguntzailea	1	C1	Jabetzan
ZERBITZU BEREZIEN AZPIESKALA			
- Udaltzainak eta hauen laguntzaileen mota			
Udaltzain laguntzailea	3	C2	Jabetzan
- Lanbideetako langileen mota			
Arduraduna	1	C2	Jabetzan
Ofiziala	1	C2	Jabetzan
Eraikinen zaintzailea	1	C2	Jabetzan

2- LAN KONTRATU FINKOKO LANGILEEI GORDETAKO PLAZAK

<i>Izena</i>	<i>Kopurua</i>	<i>Taldea</i>	<i>Egoera</i>
Peoi-Laguntzailea	1	E	Jabetzan
Kalegarbitzailea	2	E	1 hutsa
Udal eraikin eta instalazio garbitzailea	4	E	Jabetzan



ZIZURKILGO UDALA

ANEXO II

PLANTILLA ORGANICA PARA EL AÑO 2011

1. PLAZAS RESERVADAS A FUNCIONARIOS DE CARRERA

<i>Denominación</i>	<i>Plaza</i>	<i>Cargo</i>	<i>Situación</i>
ESCALA DE HABILITADOS NACIONALES			
<i>Subescala de Secretaría Intervención</i>			
Secretario-Interventor, clase tercera	1	A1	Propiedad
ESCALA DE ADMINISTRACIÓN GENERAL			
<i>Subescala Administrativa</i>			
Administrativo	3	C1	Propiedad
<i>Subescala Auxiliar</i>			
Auxiliar Administrativo	1	C2	Propiedad
ESCALA DE ADMINISTRACIÓN ESPECIAL			
<i>Subescala Técnica</i>			
- Clase Técnicos Superiores			
Técnico superior (Arquitecto)	1	A1	Prácticas
- Clase Técnicos Medios			
Técnico medio	4	A2	Propiedad
- Clase Técnicos Auxiliares			
Técnico auxiliar	1	C1	Propiedad
SUBESCALA DE SERVICIOS ESPECIALES			
- Clase Policía Municipal y sus Auxiliares			
Auxiliar de policía municipal	3	C2	Propiedad
- Clase Personal de Oficinas			
Encargado	1	C2	Propiedad
Oficial	1	C2	Propiedad
Mantenimiento de edificios	1	C2	Propiedad

2. PLAZAS RESERVADAS A PERSONAL LABORAL FIJO

<i>Denominación</i>	<i>Plaza</i>	<i>Cargo</i>	<i>Situación</i>
Peón-Enterrador	1	E	Propiedad
Barrendero	2	E	1 vacante
Limpieza edificios e instalaciones	4	E	Propiedad



ZIZURKILGO UDALA

III ERANSKINA -- ANEXO III

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEN ZERGAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

ALDAKETAK

Oraingo Testua:

IV. HOBARIAK

6. Artikulua.

1. Zerga honen %90eko hobaria izango dute etxebizitza sozialak eraikitze lanak edo honelako etxebizitzetarako eraikinak birgaitzekoak, bere modalitateetarik edozeinetan, edo salneurri tasatukoak, udal programaren bati edo Eusko Jaurlaritzako dagokion Sailekoari lotuak daudenean.

Onartutako testu berria:

IV. HOBARIAK

6. Artikulua.

1. Zerga honen %50eko hobaria izango dute etxebizitza sozialak eraikitze lanak edo honelako etxebizitzetarako eraikinak birgaitzekoak, bere modalitateetarik edozeinetan, edo salneurri tasatukoak, udal programaren bati edo Eusko Jaurlaritzako dagokion Sailekoari lotuak daudenean.

Oraingo Testua:

ERANSKINA - ZERGA KUOTAK

- Jarduera nekazaritza eta abeltzaintza duten Baserrietarako eraikuntza, instalakuntza eta obren lizentziak % 2
- Eraikuntza, instalakuntza eta obren lizentziak orokorrean % 4

ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS

MODIFICACIONES

Texto actual:

IV. BONIFICACIONES

Artículo 6.

1. Se bonificará con el 90% de este Impuesto a las obras de construcción de viviendas sociales o de rehabilitación de edificios para esta clase de viviendas, en cualquiera de sus modalidades, o las de precio tasado, que están acogidas a alguno de los programas municipales o del Departamento correspondiente del Gobierno Vasco.

Nuevo texto aprobado:

IV. BONIFICACIONES

Artículo 6.

1. Se bonificará con el 50% de este Impuesto a las obras de construcción de viviendas sociales o de rehabilitación de edificios para esta clase de viviendas, en cualquiera de sus modalidades, o las de precio tasado, que están acogidas a alguno de los programas municipales o del Departamento correspondiente del Gobierno Vasco.

Texto actual:

ANEXO - CUOTAS TRIBUTARIAS

- Licencias de construcciones, instalaciones y obras para Caseríos dedicados a Explotaciones agrícolas y ganaderas 2 %
- Licencias de construcciones, instalaciones y obras en general 4 %



ZIZURKILGO UDALA

- Izaera industrialeko eraikuntza, instalakuntza eta obren lizentziak %5

Onartutako testu berria:

- Jarduera nekazaritza eta abeltzaintza duten Baserrietarako eraikuntza, instalakuntza eta obren lizentziak % 2,50
- Eraikuntza, instalakuntza eta obren lizentziak orokorrean % 5
- Izaera industrialeko eraikuntza, instalakuntza eta obren lizentziak %5

- Licencias de construcciones, instalaciones y obras de carácter industrial 5 %

Nuevo texto aprobado:

- Licencias de construcciones, instalaciones y obras para Caseríos dedicados a Explotaciones agrícolas y ganaderas 2,50 %
- Licencias de construcciones, instalaciones y obras en general 5 %
- Licencias de construcciones, instalaciones y obras de carácter industrial 5 %